



ZABALPENAK AMATASUNA BABESTEKO PROZEDURAN

Hartzailea:

HAURDUN DAUDEN LANGILEAK / ZENTROKO ZUZENDARITZA

SARRERA

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak (INSS), Gizarte Segurantzaren Mutualitate Kolaboratzaileetako medikuekin eta Espainiako Ginekologia eta Obstetrizia Elkartearen (SEGO) Ginekologiako eta Obstetriziako espezialistekin batera, SEGOrekin elkarlanean, "Haurdunaldiko lan-arriskuak eta aldi baterako ezintasuna baloratzeko orientabideak" dokumentua (INSS, 2008) berrikusi du.

Ikasturte honetan, "Haurdunaldiko lan-arriskuak baloratzeko gida" aurkeztu du, eta, bertan, gaur egungo ezagutza zientifikoekin bat, aldaketak, zabalpenak edo zuzenketak txertatu ditu espezialitate horien arloan.

XEDEA

Dokumentua aztertu ondoren, Hezkuntza Sailaren Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak, arriskuak identifikatzeko eta haurdun daudenen edota fetuaren osasuna babesteko betebeharra betez, Amatasuna Babesteko indarreko Prozedura aldatu behar du, aipaturiko dokumentuan jasotzen diren **zabalpenak** jasoz.

Honako hauek dira zabalpen horiek:

Agente biologikoen eraginpean egotearen arriskua

- Dokumentuaren arabera, ikasleekin harreman zuzena duten langile irakasleentzat eta ez-irakasleentzat, haurdunak serologia negatiboa badu, agente biologiko hauek arriskutsuak dira:
 - Errubeola, Elgorria, Parotiditisa, Zoster Barizela, B19 Parvovirusa eta Zitomegalovirusa.
 - Era berean, nekazaritza eta abeltzaintzako langileentzat, kontuan hartu behar da zoonosi hauekiko esposizio posiblea: Brucela, Toxoplasma eta Q Sukarra.

Prebentzioko Mediku Zerbitzuak lehenbailehen egingo die serologia haurdunei; bada, agente horiekiko emaitza negatiboa bada, haurdunek lan-arriskuagatik prestazioa eskatu beharko dute, prozedura jarraituz, eta lanpostutik baztertuko dira.

**Arrisku psikosozialak: Erasoak izateko arriskua**

- Bestalde, erasoak izateko arriskuaren aurrean, eta dokumentuak jasotzen duenez, **azken bi urteetako Erasoen Erregistroa eskatuko zaio enpresari** prestazioak jaso ahal izateko.

ONDORIOAK

Zirkular honen bidez, eta gaur egungo prozedura aldatu artean, **langile emakume guztiei zabalpen horien berri emateko** eskatzen diegu hezkuntza-zentroetako zuzendariak; izan ere, arrisku biologiko horiek egon daitezkeenez, hezkuntza-eremuan **ez dago arriskurik gabeko lanposturik.**

Beraz, amatasuna arrisku horien eta beste arrisku batzuen aurrean babesteko jarduera eraginkorra izan dadin, nahiz eta haurdunaldia komunikatzea langilearen nahiaren arabera den, eta enpresak prebentzio-neurri egokiak abiarazi ahal izan ditzan, **beharrezkoa da haurdunaldi-egoera ahal bezain laster jakinaraztea.**

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 11an

Jon Agirre Huerga

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN